

HIRU BOTOI

Bazen behin Hiru Botoi izeneko arotz bat.

Herri behartsu batean bizi zen: bertako bizilagunek ez zuten altzaririk* erosteko haina diru. Urtean zehar jasotzen zituen eskariak, mahai bat eta lau aulki besterik ez ziren izaten.

—Ez al duzue nahi armario bat?

—Uf! Baina horrek asko balioko du! Ez?

—Eta komoda bat?

—Uf! Ez, ez, oso garestia izango da!

—Eta pertxa bat?

—Baita zera ere! Eta zer zintzilikatuko dugu ba pertxan, soinean daramaguna besterik ez daukagu eta?

Hau ikusi ondoren, Hiru Botoik herriz aldatzea erabaki zuen.

Baina horretarako etxe bat erosi behar zuen edo gutxienez alokatu*. Hau oso garestia irtengo zitzaiola konturatuz, gurpilak zituen etxetxo bat egiten hasi zen, oso arotz ona bait zen.

Bera oso argala zenez, etxe txiki bat egin zuen. Bertan, bera, mailua eta gubia sartzen ziren; zerra, ordea, atearen kanpokaldetik zintzilikatu zuen.

Atearen goenean bere izena margotu zuen: Hiru Botoi. Etxe azpian lau gurpiltxo ipini zituen. Eta arrastaka eramateko egurrezko kirtena.

—Ja! Ja! Ja! Begira, begira, Hiru Botoik helduleku eta guzti egin du etxea.

Eta barre egiten zuten. Baina Hiru Botoik ez entzunarena egiten zuen.

Edozein herri zeharkatzen zuenean, bere etxea arrastaka eramanez, jendeak esaten zuen:

—Begira, begira! Hiru Botoik rulotte bat erosi du. Eta gasolina non sartzen duzu, depositurik ez daukazu eta? Zer, edan egiten duzu, ala? Hiru Botoik bere txapela jaso eta jendea agurtzen zuen. Eta bere etxetxoa hartuz aurrera jarraitu zuen. Aldapan behera, etxea arina zenez, gainean eseri eta txirristaka joaten zen, belozidade aurpegia ipiniz.

Askok ibili ondoren gaua iritsi zen, eta zelai batean gelditu zen.

—Hemen lo egingo dut, gaurkoz nahiko bide egin dut eta!

Ordu batzuk barru, teilatu gainean euriak ateratzen zuen zaratak esnatu zuen. Ekaitz gogorra lehertu zen, tximistek gaua argituz.

—Aiba, zelako trumoiak! —esan zion Hiru Botoik bere buruari.

Trumoiaren zarataz gain, norbaiten hotsa ere entzun zuen ate joka:

—Ireki ieza dazue atea, mesedez! Ireki, Hiru Botoi!

—Nor da?

—Utziazu sartzen, bustitzen ari naiz eta!

—Sar zaitez, ahal baduzu. Etxea neuretzat bakarrik egin dut, baina sartzen bazara, aurrera! Bat sartzen den tokian, bi ere sartzen dira! Agure bat zen. Gizarajoa blai eginda* zegoen. Pixka bat lehortu ondoren, ohe gainean etzan zen.

altzari: mueblea

alokatu: alkatu (maizterra).

arotza: egurra moldatu eta lantzen duena

—Ikusten duzu nola sartu naizen?

—Bai, bai, baina zu nor zara?

—Zure osaba Goxoki naiz. Bakarrik geratu naiz eta zuregana etortzea erabaki dut. Herrira joan eta zu ez zeundela ikustean, larritu egin naiz. Herriko mutikoek zein bide hartu duzun esan didate eta hemen nauzu. Etxe berri bat egin duzu, e?

—Bai, arotza izateak bere abantailak* baditu.

—Pozten naiz. Bihar hitzegingo dugu, oso nekatuta nago eta. Barkatuko didazu.

—Ondo lo egin! —erantzun zion Hiru Botoik.

Trumoiarekin batera, berriro ere atea jo zuten:

—Ireki atea, mesedez! Ireki!

—Zein da?

—Emakume alargun* bat neure hiru semeekin. Ekaitzak bidean harrapatu gaitu eta ez daukagu non gorderik.

—Ahal baduzue sar zaitezte. Etxea neuretzat bakarrik egin dut, baina sartzen bazarete, aurrera! Bi sartzen diren tokian hiru ere sartzen dira. Eta hurrek, badakizu, ez dute tokirik okupatzen.

Oso txikia izan arren, denak sartu ziren.

—Mila esker, gizon. Hemen oso ondo egoten da.

—Barkatu, hiru haurtxo hauekin alargun geratu naiz eta ezin nuen etxearen errenta ordaindu eta nagusiak bota egin nau. Zer egin behar ote dugu guk hemendik aurrera? —eta hau esatearekin batera negarrari eman zion.

—Lasai, orain lo pixka bat egiten saia zaitez.

Ekaitzak jarraitzen zuen bitartean, jendea aterpe* bila zetorren Hiru Botoiren etxerantz. Eta gure arotzak gauza berdina erantzuten zuen:

—Bost sartzen diren tokian, sei ere sartzen dira... Sei sartzen diren tokian, zazpi ere sartzen dira. Hamaika sartzen diren tokian, hamabi ere sartzen dira.

Egunsentia iritsi aurretik, zerua hodei beltzez estalirik zegoenean eta trumoi gogorrenak dunbaka ari zirenean, ukabil* indartsu baten danbatekoek etxetxoa dardarka ipini zuten:

—Ireki ezazue!

—Gutxienez "mesedez" eska zezakeen —pentsatu zuen Hiru Botoik.

Baina besteei bezalaxe ireki zion atea eta aurrean...

—Sartzen utz iezadazu eta nere zaldiari ere bai!

Mantua blai eginda zekarren, baina koroiak, zaparradaren eraginez, ditzira berezia botatzen zuen. Dударik gabe erregea zen.

—Errege jauna, nolatan zu hemen? —esan zion Hiru Botoik.

—Ehizean nenbilela, galdu eta bakarrik geratu naiz.

—Beno, beno, sar zaitez. Hamabi sartzen diren tokian, hamahiru ere sartzen dira. Eta erregea sartzen den tokian, bere zaldia ere sartzen da. Erregea sartu zen eta ingurua miatu ondoren esan zuen:

blai eginda: busti-busti

abantaila: bentaja

alarguna: ezkontidea hilda daukana, viuda

—Kanpotik txikiagoa zirudien!

—Egia esanda, neuretzat bakarrik egina zen, baina...

Zein egur mota erabili duzu?

—Gaztainondoa, errege jauna.

—Ba, gaztainondoa ez da elastikoa. Zerbait arraroa gertatzen da hemen!

—Ba eskerrak zerbait arraroa dagoenik, bestela nola sartu behar zuen hainbeste jendek?

Bernardino erregea pentsakor geratu zen.

—Beharbada ez da egurraren arazoa izango, bihotzarena baizik.

—Zer esan nahi duzu?

—Bihotza ukabila bezain txikia da, baina norberak nahi izanez gero, munduko jende guztia sar lezake eta oraindik lekua gelditzen da. Etxe hau bihotzez egin duzula nabaritzen da.

Hiru Botoi isil-isilik geratu zen.

—Eta jende guzti hau zein da? —galdetu zuen erregeak.

—Hura osaba Goxoki da; beste hura alargun bat bere hiru semeekin...

Hiru Botoi gertatutakoa kontatzen ari zen bitartean, Bernardino erregea gero eta tristeago jartzen ari zen. Azkenean agure gaixo bat ametsetan aiumaka* ari zela ikusi zuenean, buruan zeraman koroia kendu egin zuen, gainean eramateko pixuegia balitz bezala.

—Errege ona nintzelakoan nengoen, baina begira zenbat jende zoritxarreko. Zer egin dut nik jende gizarajo honentzat? Zuk baino gutxiago; zuk gutxienez aterpea eman diezu. Aldegiteko ordua iritsi zait,

—Euri zaparrada honekin aldegin behar al duzu?

—Ez, ez, ez nuen hori esan nahi. Nere erregetza uzteko momentua iritsi zait. Nere agintepean jendea zorientsu izatea ez badut lortu, hobe dut nere koroia uztea. Baina oraindik zerbait egin dezaket. Ekaitza*bukatu bezain laster denok etorriko zarete nirekin jauregira. Ikusten dudanez, zu arotz ona zara eta jauregian ez zaizu lanik faltako. Besteekin ere pentsatuko dugu: gaixoak sendatuak izango dira; lanik gabe daudenek lana aurkituko dute. Honen truke, zuk gurplekiko etxea emango didazu, behartsu guztiak bertan jasotzeko. Ados al zaude?

Ez dakigu Hiru Botoiren erantzuna zein izan zen, momentu hartan bertan bozina hotsa entzun bait zen inguruan.

Gauetz, haizeak etxea errepede erdira bultzatu zuen eta herriko autobusa pasa ezinik zegoen.

—Ee! Aizue! —oihukatzen zuen autobuseko gidariak—. Esna zaitezte! Baztertu bide erditik!

Jendea leihoetara irten eta barrez hasi zen.

—Hiru Botoiren etxea da!

—Etxea? Rulotta esan nahiko duzue, ezta?

—Esnatu, Hiru Botoi!

aterpe: estalpe, euririk sartzen ez den tokia

ukabila: esku bildua, puño

aiumaka: garrasika

ekaitza: tenpestadea

Hiru Botoi etxetik irten zen. Bere atzetik osaba Goxoki; honen atzetik emakume alarguna bere hiru semeekin; azkena lau hankan irten zen.

—Baina hau ez da etxe bat! —esaten zuen jendeak barrez—. Prestidijitadore baten kapela da! Ikusiko duzue, azkenean untxi zuri bat nota irtengo den!

Eta jendea irten eta irten.

—Aiba! Begira, begira! Ez da untxi zuri bat irten, zaldi zuri handi-handi bat baizik! Hau hobe da oraindik!...

Baina zaldiaren atzetik: Ooooo...!!! Jendea mututurik geratu zen... Bernardino erregea irten zen.

Autobuseko gidariak gurkera* bat egin zion, ia-ia bizarra bi zatitan hautsiz.

—Nahikoa da! Utzi berriketa horiek alde batera! Denok autobusera, sarrera nik ordainduko dut eta. Hiru Botoiren etxea atzekaldean lotuko dugu eta ni zaldi gainean joango naiz bidea gidatuz.

Historia-liburuek egia badiote, orduan izan omen zen autobus bat erregeak berak zaldiz eskoltatua eramaneko lehenengo aldia. Eta azkenekoa ere bai.

Hiru Botoi alargunarekin ezkondu zen, eta haren umeez jolas egin zezaten, gurpilekiko beste etxetxo bat egin zuen, lehenengoaren berdina. Bestea bezain txikitxo zen, baina hiriko haur

guztiak kabitzen ziren barruan, eta azkenik katuren batek sartu nahi bazuen ere, tokia egoten zen berarentzat.

gurkera: pensona bat agurtzeko egiten den gorputzaren makurketa, erreberentzia.

GIANNI RODARI

Gianni Rodari (Omegna, Piemonte, 1920ko urriaren 23a - Erroma, Italia, 1980ko apirilaren 14a) italiara idazlea izan zen. Irakasle, kazetari, pedagogo eta abar izan zen, eta 1950. urte inguruan hasi zen literaturan. Rodarik berak zioenez, **Maggiore aintziraren** inguruan hurren irakasle jardun zuen garaian berak asmatutako kontakizunak esaten zizkien hurrei, errealitatearekin batere loturarik gabeko kontakizunak, eta askotan surrealismoak darabiltzan teknika berberei jarraituz osatuak. Horrela, Rodarik "haurrentzako kontakizunen asmatzaile" deitura eman zion bere buruari, eta bere obra askotan (*Zer gertatuko da aitona katu bihurtzen bada?*, 1969; *Istorioren nahas-mahasa*, 1971; *Jolas egiteko ipuinak*; 1971; *Barre egiteko istorioak*, 1971) kontakizun berriak asmatzeko modua iradokitzen die aldi berean irakurleei, betiere irudimena eta hura kitzikatzeko teknikak erabiliz, eta orobat proposatzen die kontakizun horiek hurren hizkuntza heziketarako tresna moduan erabiltzea. Bere karreraren zehar hogeitaz liburutik gora idatzi zituen, umore finez eta irudimen zorrotzez hornituak, ironia handikoak. Aipatzekoak dira, besteak beste, *Telefonozko ipuinak* (1961), *Tarta balioetsia* (1966), *Gondola fantasma* (1978) edota *Midas erregearen istorioa* (1983). 1970. urtean **haur literaturako** Nobeltzat hartua den **Hans Christian Andersen saria** eman zioten.